

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

Behin betiko onestea 2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2021eko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka. Beraz, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

DIRU SARREREN EGOERA

| DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA | ZENBATEKOA |
|--|-------------------|
| 1. Zuzeneko zergak | 246.020,05 |
| 2. Zeharkako zergak | 27.000,00 |
| 3. Tasak eta bestelako diru sarrerak | 40.953,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 201.051,09 |
| 5. Ondare sarrerak | 38.782,92 |
| Diru sarrera arruntak (1-5 batura) | 553.807,06 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea eta hirigintza jardueretako beste diru sarrera batzuk | 0,00 |
| 7. Kapital transferentziak | 136.425,00 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 0,00 |
| Diru sarreraren aurrekontua, guztira | 690.232,06 |

GASTUEN EGOERA

| GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK, KAPITULUKA | ZENBATEKOA |
|---|-------------------|
| 1. Langile gastuak | 163.862,01 |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak | 280.233,98 |
| 3. Finantza gastuak | 1.486,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 92.439,62 |
| Gastu arruntak (1-4 batura) | 538.021,61 |
| 6. Inbertsio errealak | 131.710,45 |
| 7. Kapital transferentziak | 8.000,00 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 12.500,00 |
| Gastuen aurrekontua, guztira | 690.232,06 |

Aldi berean, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal funtzio publikoaren Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, osorik argitaratzen da udal honek onartutako langileen plantilla eta lanpostu zerrenda.

Aurrekontu plantilla

A. Karrerako funtzionarioak.

1. Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioak.

1. Idazkaritza-kontuhartzaitza; taldea: A1; destino-osagarriaren maila: 26; berariazko osagarria: 21.895,05 euro; hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun datarik gabe. Administrazio egoera: jardunean.

B. Administrazio orokorreko funtzionarioak.

1. Azpieskala: laguntzaileak.

1. Administrari laguntzailea (askotariko eginkizunak); taldea: C2; destino-osagarriaren maila: 18; berariazko osagarria: 19.631,78 euro; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe. Administrazio egoera: bitartekoa.

Halaber, bat etorritik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira dedikaziorik gabeko korporatiboentzat onartu diren ordainsariak:

1. 2019ko ekainaren 27ko erabaki bidez, alkateak dedikazio erregimen partzialean (ehuneko 42,85) jardungo du, eta haren soldata gordina 17.338,86 euro izango da.

2. Zinegotziek 80 euroko ordainsaria jasoko dute udalbatzetara, batzordeetara eta bileretara joateagatik (gehienez ere 2.000 euro).

Aurrekontu orokorra behin betiko onestearen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzibideari ekin baino lehen, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke udalbatzari, iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta hilabeteko epean.

Bernedo, 2021eko otsailaren 5a

Alkatea

RUBEN MARTINEZ CRESPO